

# **IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEAGATIKO ETA UDAL LOKALETAN EDUKITZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020. URTEA**

## **OINARRIA ETA IZAERA**

1.artikulua. Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udal honek bide publikotik ibilgailuak ibilgetzeagatiko, kentzeagatiko eta Udalaren lokaletan egoteagatiko tasa ezartzen du. Azken hori ondorengo Zerga Ordenantzak eraenduko du eta horretara bidutako arauak aipatu Foru Arauak ezarritakoari lotzen zaizkio.

## **ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.- Ordainarazteko zerga egitatea da udal zerbitzuak emateko eskatzen diren bitarteko pertsonal eta materialak aprobetxatzea, ibilgailuak kentzeko eta udalaren lokaletan gordetzeko lanetan.

## **SUBJEKTU PASIBOAK**

3. artikulua. 1. Subjektu pasiboak dira, zergadun legez, pertsona fisikoak eta juridikoak eta Ordenantza honek arautzen dituen udal zerbitzu edo jarduerak eskatu edo horiengandik onurarik atera edo kalteturik gertatzen diren Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek aipatzen dituen Erakundeak.

2. Jarduera administratiboan edo zerbitzuan eragina izango du edo subjektu pasiboaz arituko da, subjektu berak eragindakoa izan denean zuzenean edo zeharka, hau da, azken horren jardueren edo alderauzketen ondorioz, Udalak jarduera horiek burutzera edo zerbitzuak ematera beharturik dagoenean

## **EZARPEN OINARRIA**

4. artikulua. Ezarpen oinarria kasuan kasuko zerbitzu edo jardueraren benetako kostu edo kostu aurreikuskorrek osatuko du. Horrela, kontuan izango dira, zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa osatzeko izango diren gastu zuzenak edo zeharkakoak, baita finantza izaeradunak, ibilgetuen amortizazioa eta aplikagarriak diren gastu orokorrak ere. Halaber, kontuan izango dira, zerbitzu edo jarduera mota eta horien ezaugarrien arabera, ibilgailu mota eta tasa ordaintzera beharturik dauden subjektuen ahalmen ekonomikoa.

## **ERANTZULEAK**

5. artikulua.- 1.- Subjektu pasiboaren zergak ordaintzeko betebeharrei erantzungo dizkiete Zergei buruzko Foru Arauaren 41. art.ak aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

## **ZERGA KUOTA**

6. artikulua. Ordainerazpen horrengatik ordaindu beharreko kuota ondorengo TARIFEN aplikazioaren ondoriozkoa izango da:

### **1.- Bide publikotik ibilgailuak kentzeagatik:**

1.1. Bizikletak, ziklomotoreak	23,95 euro
1.2. Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak	35,95 euro
1.3. Beste ibilgailuak 1.500 kg.rainoko pisu hila dutenak	70,80 euro
1.4. Ibilgailuen pisu hila 1.501 eta 2.727 kg.en artekoa*	93,60 euro

### **2.- Ibilgailuak Udal gordailuetan egoteagatik, ibilgailua gordailuan sartzen denetik hamabi ordu egin eta entrega egungarreneira. Baita epailaren aginduta kentzeagatik:**

2.1. Bizikletak, ziklomotoreak	2,95 Euro/egun
2.2. Motozikletak eta antzeko ibilgailuak	4,55 Euro/egun
2.3. Beste ibilgailuak, 1.500 kg.rainoko pisu hila dutenak	7,85 Euro/egun
2.4. 1.500 kg. pisu hiletik gorako ibilgailuak	16,85 Euro/egun

### **3.- Garabiaren krokaduragatik:**

3.1. Bizikletak, ziklomotoreak	11,30 Euro
3.2. Motozikletak eta antzeko ibilgailuak	16,85 Euro
3.3. Beste ibilgailuak, 1.500 kg.rainoko pisu hila dutenak	32,75 Euro

3.4. 1.500 kg. pisu hiletik gorako ibilgailuak

44,00 Euro

\* 2.727 kg.tik gorako pisu hila, tarifa kalkulatu, ibilgailuakendu eta eramateko kontratatutako zerbitzuaren sarienarabera egingo da.

## **SALBUESPENAK**

7. 1.-artikulua. Ez dute tasa ordaindu beharko ostutako ibilgailuek eta osketa hori egiaztatu beharko da osketaren zioz aurkeztutako salaketaren kopia aurkeztuz.

2.- Tasa honetatik salbuetsirik geratzen dira, halaber, udal gordailura larrialdi edo beharrian arrazoiren batengatik eraman diren ibilgailuak, udalari berari komeni zitzaiolako, bide publikoan lanak egiteko, zilegi ez den modu batean ustez erabili nahi direnak edo ibilgailuko objektuen segurtasuna bermatu nahi denean.

## **SORTZAPENAK**

8. artikulua. Tasa sortzen da eta zergak ordaindu beharko dira, azken horren zerga egitatea osatzen duen udal zerbitzu edo jarduera ematen hasten denean

Krokaduraren zerbitzua hasiko da horretarako maniobrak hasten diren unean.

## **KUDEAKETA**

9. artikulua Ezingo da ibilgailua gordailutik atera, horri dagokion tasa ordaindu baino lehen edo, hala badagokio, Toki Ogasunen Foru Arauak xedatutakoaren arabera zenbatekoa gordailatu arte.

10. artikulua. Tasa aplikatu arren, zirkulazio arauak urratzearen edo Udaltzaingoak ezarritako zehapenak ezarri ahal izango dira.

## **URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

11. artikulua. Zerga urratzeak kalifikatzearen gainekoan eta kasuan kasuko urratzei dagozkien zehapenetan, Zerga-Foru Arau Orokorren 183. artikuluek eta ondorengoek xedatutakoa ezarriko da.

12. artikulua – Ibilgailu abandonatuak

Ibilgailu abandonatuak erretiratu eta udal gordailura eramango dira. Leku-aldatzeari eta egonaldiari dagozkien tasak titularrak ordaindu beharko ditu.

Ibilgailu bat udal gordailuan bi hil baino gehiagotan dagoenean titularrak hura erretiratu gabe, edo bide publikoan hilabetez aparkaturik egon eta arrazionalki abandonurik dagoela edo berez mugitzerik ez dagoela pentsa daitekeenean, edo matrikulako plakak falta dituenean, hondakin solidotzat joko da. Aldez aurretik egoera titularrari jakinaraziko zaio, baldin eta identifikatzen bada, eta gehienez ere hamabost egun edukiko ditu ibilgailua erretiratzeko, erretiratze eta egonaldi tasak ordainduta. Epe horretan ibilgailua erretiratzen ez badu, udalak hondakin solidotzat jo eta zor tributu-zorrenaren likidazioari eta diru-bilketari ekingo dio.

Udal gordailuan abandonaturik uzten diren ibilgailuengatik gehienezko tasa bat ordainduko da, bi hilekoa.

Ibilgailuaren titularrak hondakin solido gisa tratatzeko lagatzen badu, lagapena egiteko akta bat bete beharko du beren beregi, dagokion dokumentazioarekin batera. Lagapena egiten duen egunetik aurrera, tasatik salbuetsita geratuko da, eta ordura arte ordaindu beharko du. Ibilgailua oraindik biltegira eraman gabe badago, ibilgailua kentzeagatiko tasa baino ez du ordainduko.

## **ORDENANTZA HAU ONARTZEA ETA INDARREAN JARTZEA**

12. artikulua. Ordenantzaren oraingo testua 1992ko martxoaren 27ko Udal bilkuraren bidez onartu zen eta 1992ko azaroaren 27ko, 1993ko azaroaren 26ko, 1995eko azaroaren 24ko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko , 1997ko abenduaren 19ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28ko, 2003ko azaroaren 28ko, 2004 azaroaren 26KO, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2016ko apirilaren 27an, Bilkura-akordioaren bidez aldarazi zen. Halaber, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da eta indarrean iraungo du testua aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.